

5. BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:

Lehen esan dugun bezala 1700 banatzaile egongo dira, ondorioz, 1700 furgoneta. Komunitate autonomo bakoitzean 100 banatzaile egongo dira. Banatzaile bakoitzak Komunitate autonomoan eremu geografiko fijo batean lan egingo dute lekuarekin familiarazteko.

Aplikazioaren bidez egingo da banaketa eta aplikazioak automatikoki egokituko dio gertuko erretiratu bati (bezeroaren kokapenaren arabera). Bezeroek aplikaziotik eskubidea edukiko dute beraien iritzia emateko banatzaileen inguruan, kexak eta gauza onak esan ditzakete eta baloratu dezakete 1-5 izarren artean. Bezeroek gutxi gora behera beraien eskariaren entrega ordua jakiteko aukera edukiko dute, gainera, bakoitzak bere banatzailearen izena edukiko dute aplikazioan (telefono zenbakiarekin, gmail batekin...), kexatzeko edota entregaren inguruan galderak egiteko.

Bezeroekin harremanetan jartzeko erabiliko dugu aplikazioa chat baten bitartez, edozer gauza esateko eskariari buruz edo galderak erantzuteko. Aplikazio askok ez bezala, enpresaren telefono zenbaki "ofizial" bat edukiko dugu entregarenbat iristen ez bada edota arazo larri bat gertatzen bada guri zuzenean jakinarazteko.

Enpresaren barneko komunikazio kanalarik dagokionez, hainbat bilera gauzatuko ditugu, banatzaileekin, koordinatzaileekin... ebaluazio orokor bat egiteko, neurri berriak hartzeko eta arazoak konpontzeko helburuarekin.